

KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko gai izateko, hainbat kostu izango ditugu.

Alde batetik, kostu finkoak izango ditugu eta horien barruan egongo dira espazioa erostea eta litekeena da hiritik gertu dagoen leku batean kokatuta egotea. Beharko dugun espazioa ikusita, gutxi gora behera 200 metro karratuko pabiloi batean jarriko ditugu makineria eta bulegoa, ezaugarri horietako espazioek 120000 euro inguru kostatzen dute erostean. Era berean, lehenengo inbertsio bat egin beharko da ImpactBioenergy enpresaren HORSE AD25 makina espezializatua erosteko, erabaki dugun modelua 133000 dolar estatubatuar edo 120000-125000 inguru Euro kostatzen du. Bestalde, gure kontenedore modelua 1400 euro kostatuko du unitatea bakoitza eta gutxi gorabehera hasieran 20 kontenedore jarriko ditugu hiri batean, guztira 28000 euroko kostua suposatuko du.

Bestetik, kostu aldakorrak egongo dira eta hauen barruan enpresaren langileak nabarmenak dira. Enpresaren langileen eginkizunaren arabera, soldata desberdinak izango dituzte eta aurreikusten dugu bost-zazpi langileekin nahikoa izango dugula, hauek Espainiako lanbide arteko gutxienezko soldata kontuan hartuta, minimo 1000€-ko soldata izango lukete. Enpresa azpikontratatuak ere izango dira garrantzitsuak gure produktuak transportatzeko. Ildo beretik, txartelak ekoizten dituen enpresa bat beharko dugu gure txartelak produzitzeko eta kostu hauek aldatu daitezke enpresaz enpresa.